



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2021EKO UZTAILA

EAEaren barnealdean uztaila tenperaturari dagokionez ohikoa izan zen eta prezipitazioari dagokionez oso lehorra; kostaldean, berriz, uztaila hotza edo oso hotza izan zen eta lehorra (Donostialdean eta Gernika-Bermeon ohikoa). Mediterraneo isurialdean mende honetako bigarren edo hirugarren uztailik lehorrena izan zen. Muturreko egoerak oso urriak izan ziren, eta aipagarria izan zen bakarra muturreko tenperatura altuengatik izandakoa.

Prezipitazioa

Uztaila barnealdean oso lehorra izan zen, kostaldean lehorra, eta Donostialdean eta Gernika-Bermeo eskualdeen inguruan ohikoa. Donostialdean pilatu zen euri gehien, batez ere Nafarroako mugan, eta bi estaziotan 100 mm baino gehiago pilatu zen (Eskas 141 mm, Añarbe 108.2 mm, Miramon 88.2 mm, Ereñozu 87.8 mm). Bizkaiko kostaldeko estazioak balio horietatik urrun geratu ziren (Matxitxako 67.8 mm, Mungia 43.9 mm, Sangroniz 41 mm) baita barnealdeko mendi inguruetan kokatutako beste batzuk ere (Oiz 50.4 mm, Urkiola 48.3 mm, La Garbea 43.2 mm). Mediterraneo isurialdean, aldiz, pilatutakoa 10 mm baino txikiagoa izan zen eta zenbait lekutan ez zuen apenas euririk egin (Nanclares 0.3 mm, Subijana 0.5 mm, Abetxuko 0.6 mm, Párganos 0.7 mm), ohikoa denaren %20a baino gutxiago jaso zen, alegia. Mende honetako bigarren edo hirugarren uztail lehorrena izan zen, 2005eko uztailaren atzetik eta Arabako Errioxan 2009ko uztailaren atzetik (orduan 0 mm pilatu ziren).

Logikoki, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua oso baxua izan zen; Kantauri isurialdean 6 edo 7 euri-egun izan ziren, Mediterraneo isurialdean askoz gutxiago, zenbait lekutan 0, ikusi dugun bezala. Bi euri-egunetan prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm) izan zen, hilaren 12an eta 13an, hain zuzen.

Hilaren 12an kostaldean euria ugaria izan zen eta Gipuzkoa ipar-ekialdeko mendi inguruetan 20 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 30.8 mm, Añarbe 27.7 mm, Miramon 22.9 mm, Almike 19.9 mm). Hurrengo egunean egoera antzekoa izan zen, baina euria Kantauriko bailaretan apur bat gehiago sakabanatu zen (Añarbe 36.6 mm, Eskas 29.6 mm, Lasarte 27.6 mm, Oleta 11.6 mm, Sangroniz 10.2 mm, Amorebieta 10.2 mm). Bi egun horietan Mediterraneo isurialdean ia zuen euririk egin, Gorbeialdean eta Arabako Lautadaren ekialdean egin zuen soilik euri pixka bat.

**Taula 1: Azken urteetan uztailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	32.3	36.0	45.7	24.6	32.0	33.4	26.2	60.8	21.4	15.8
Lasarte	77.1	41.8	92.7	80.0	64.6	68.0	48.8	116.4	44.8	53.4
Arrasate	17.9	15.3	43.4	54.5	34.6	39.9	20	101.3	13.4	17.7
Abetxuko	0.6	14.7	28.8	64.1	10.9	9.3	20.9	37.9	41.8	14.2
Párganos	0.7	7.6	23.2	59.6	31.8	6.9	34.9	20.9	52.3	15.1

Temperatura

Uztaileko batez besteko temperatura kostaldean hotza edo oso hotza izan zen, eta zenbat eta barnealderago, eta balioak orduan eta gehiago hurbildu ziren ohiko balioetara. Batez besteko temperatura antzekoa izan zen lurralde osoan; kostaldekoan 19 °C ingurukoa, Arabako Lautadan gradu bat baxuagoa eta Arabako Errioxan 20 °C ingurukoa. Lurralde osoa kontuan hartuz 1981-2010 denboraldi normalaren batez besteko temperatura baino 0.4 °C baxuagoa. Mende honetako laugarren uztail hotzena izan zen, eta serieko hotzena 2002koa izan zen.

Egunean eguneko temperaturaren bilakaerari so eginez, egun hotzak beroei gailendu zitzaizkien. Hilabetearen hasieran eta hilaren 20aren inguruan izan ziren egun beroak nagusi.

Kostaldean brisa eta iparraldeko haizea nagusitu ziren, beraz giroa freskoa izan zen eta temperaturak ez zuen gorabehera handirik izan. Barnealdean, aldiz, temperaturaren bilakaeran kontraste handiagoak izan ziren.

Hilaren 5ean temperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren denean, kostaldean eta barnealdeko mendi inguruetan izan ezik. Kantauri isurialdeko egunik beroena izan zen hura eta Kantauriko bailaretako hainbat tokitan temperatura maximoak 35 °C-tik gorakoak izan ziren (Sodupe 36.6 °C, Elorrio 36.4 °C, Mungia 36.1 °C, San Prudentzio 35.6 °C). Beroa igarokorra izan zen, izan ere arratsaldean haizea iparraldetik finkatu zen eta temperatura jaitsi egin zen.

Mediterraneo isurialdean hilaren 12tik aurrera temperatura pixkanaka igotzen joan zen. Hilaren 12a izan zen egunik hotzenetakoa, gero temperatura igotzen joan zen pixkanaka, eta hilaren 22an hileko baliorik altuenak neurtu ziren (Zambrana 38.5 °C, Kanpezu 38.4 °C, Espejo 38.2 °C, Nanclares 37.6 °C, Moreda 37.5 °C, Arkauti 36.8 °C). Hilaren 22an, muturreko temperatura oso altuengatik Ebro ondoko eskualdean eta iragate-zonan abisu horia igorri zen. Egun horretan ipar isurialdearekiko kontrastea handia izan zen, batez ere kostaldean, izan ere han behe-hodeiak nagusitu ziren eta temperatura ere neurritzkoa izan zen.



Hilabetea egun hotz batekin amaitu genuen, batez besteko tenperaturaren anomalia 3-6 °C baxuagoa izan zen.

Isurialdeen arteko ezberdintasun handi hori intsolazioan ere nabaritu zen. Kantauri isurialdeko intsolazioa ohikoa dena baino %15 baxuagoa izan zen, Mediterraneo isurialdean, aldiz, %7 altuagoa. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 161 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 168 ordu eta Gasteizen 262 ordu.

Taula 2: Uztailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	19.4	20.5	21.0	21.8	19.8	21.1	21.6	20.3	22.1	19.7
Lasarte	18.7	20.0	20.3	21.2	19.8	19.8	20.8	19.2	21.7	19.0
Arrasate	18.4	18.9	19.8	20.1	19.4	19.0	20.1	18.2	21.4	18.1
Abetxuko	18.0	18.9	19.9	20.1	19.5	19.3	20.7	18.5	21.3	18.1
Párganos	20.3	21.1	21.9	20.9	21.1	20.8	22.3	19.4	22.4	19.4

Haizea

Uztailean haize lokala izan zen nagusi, kostaldean brisa, Iberiar Penintsularen barnealdean gailendu zen bero-depresioari esker. Goizean haizea aldakor ibili zen hainbat egunetan, baita ilunabarretik aurrera ere. Eguerdialdera haizea iparraldetik finkatu eta arratsaldean indartu egiten zen, batez ere Araba hegoaldean. Horregatik, haizeguneak ez diren tokietan neurtutako haize-boladarik gogorrenak Araba hegoaldekoak izan ziren, Subijana, Ilarduia, Párganos edo Moreda, esate baterako; estazio horietan arratsaldetan neurtutako haize-boladak 40-60 km/h ingurukoak izan ziren.

Nagusitu zen egoera sinoptikoaren ondorioz, haizea ahul ibili zen orokorrean. Egun batzuetan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren, batez ere fronteak lurraldetik pasa ziren egunetan (hilaren 5ean eta 12an) edo antizikloia Atlantikoan kokatu zen egunetan (hilak 14). Egun horietan mendebaldeko edo ipar-mendebaldeko haizea ibili zen eta Matxitxakon haize-bolada batzuk 80 km/h-ko abiadura gainditu zuten (hilaren 12an, 81.5 km/h; hilaren 13an, 81.9 km/h). Egun horietan Ordunten neurtutako haize-boladak ere aipagarriak izan ziren, 70 km/h-ko abiadura gainditu baitzuten.

Gainerako egunetan haize-bolada gogorrak egunero neurtu ziren, 40-60 km/h ingurukoak. Baina kurioz izan zen egoera, izan ere haize-bolada gogoragoak neurtu ziren Araba hegoaldeko haizeguneak ez diren lekuetan mendi inguruetan baino. Alabaina, hilaren 23an gertatutako aipatu behar da; egun horretan, arratsaldearen hasieran fronte bat iritsi baino lehen, Araba hegoaldean hego-mendebaldeko haizea ibili zen eta Tobillas estazioan 71.6 km/h-ko haize-bolada neurtu zen.



Aipatu behar da hilabete osoan haizeari loturiko muturreko egoerarik ez zela izan, batez ere udan hain ohikoak diren enbatei edo trumoi-ekaitzei loturiko haize-bolada bortitzak.

Analisia

Uztailaren 1etik 2ra

Bizkaiko golkoan presio altuen gune txiki bat zabaldu zen eta Kantauri isurialdean ipar-haizea ibili zen; behe-hodeiak eta giro freskoa izan ziren nagusi. Iberiar Penintsularen barnealdean, ordea, bero-depresioa sortu zen eta hilaren 1ean Arabako hegoaldean bero egin zuen, hilaren 2an barnealdeko eskualde guztietan.

Uztailaren 3tik 4ra

Hilaren 3an fronte okluditu bat pasa zen EAetik eta zerua oso hodeitsu egon zen, batez ere iparraldean; zirimiria egin zuen. 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 12-14 °C-ra jaitsi zen.

Uztailaren 5a

Hilaren 5ean hego-osagaiko haizea ibili zen eta Iberiar Penintsulan aire-masa bero bat zabaldu zen. Tenperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren ia denean, batez ere Kantauriko ballaretan. Arratsaldean haizea ipar-ekialdera aldatu zen eta tenperaturak behera egin zuen.

Uztailaren 6tik 8ra

Hilaren 6an goi-geruzan aska bat agertu zen. Britainiar uharteetatik igaro zen depresio bati loturiko fronte bat iritsi zen eta eguraldia nabarmen aldatu zen. Zerua oso hodeitsu egon zen eta euri txikia egin zuen; arratsaldean Araba hegoaldean zaparrada ertain batzuk bota zituen. Hilaren 7an eta 8an ere euri txikia egin zuen eta giroa freskoa izan zen: hilaren 6an 850 hPa-eko mailako airearen tenperatura 21 °C izatetik 6 °C ingurukoa izatera pasa zen hilaren 8an.

Uztailaren 9tik 11ra

Hilaren 9tik aurrera Azore uharteetako antizikloia Kantauri itsasoan zabaldu zen, ziri itxurarekin. Goi-geruzan zirkulazio zonala ezarri zen, baina gradiente txikiarekin. Hilaren 11an Afrika iparraldean jatorria zuen gailur handi bat zabaldu zen gurean eta hilaren 11an Iberiar penintsularen erdialdean eta hegoaldean airearen tenperatura 31 °C ingurura ailegatu zen 850 hPa-eko mailan. Mediterraneo isurialdean tenperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren orokorrean eta Iberiar Penintsularen hego-ekialdeko zenbait lekutan tenperatura maximoak 44 °C-tik gorakoak izan ziren.

Uztailaren 12tik 16ra

Hilaren 12an aska baten isla zen beste fronte atlantiar batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen eta eguraldia aldatu zen. Aire-masaren aldaketa ere nabarmena izan zen eta hilaren 13an 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 5-7 °C



ingurukoa izan zen. Zerua oso hodeitsu egon zen, euria egin zuen eta zaparrada batzuk bota zituen, mardulenak ekialdean. Hurrengo egunetan Azoreetako antizikloia zabalduz joan zen gurean eta ipar-haizea ibili zen. Zerua oso hodeitsu egon zen egun horietan eta giroa freskoa izan zen, batez ere iparraldean.

Uztailaren 17tik 22ra

Hilaren 17tik aurrera Atlantikoko presio altuak Britainiar uharteetara zabaldu ziren. Hilaren 18an Irlanda mendebaldean kokatu ziren, 1028 hPa-eko presioarekin erdigunean, goi-geruzako Omega blokeo txiki baten isla; Iberiar penintsulatik Britainiar uharteetaraino hedatu ziren. Eki-osagaiko haizea izan zen nagusi egun haietan eta hilaren 20ra arte zerua hodei gutxirekin egon zen. Hilaren 21etik aurrera presio altuak Europa iparraldean kokatu ziren eta Kantauri itsasoa aintzira barometrikoan murgilduta geratu zen. Lurraldearen hegoaldea, berriz, Iberiar Penintsularen barnealdeko bero-depresioaren eraginpean geratu zen. Gailur termiko baten pean, 850 hPa-etako mailan airearen tenperatura 26 °C ingurukoa izan zen Penintsularen erdialdean eta ekialdean. Iparraldeko eta hegoaldeko eguraldiaren arteko aldea handia izan zen. Kostaldean behe-hodeiak ugariak izan ziren eta tenperatura ez zen altua izan; hegoaldean, aldiz, tenperatura maximoak 35 °C-tik gorakoak izan ziren.

Uztailaren 23tik 29ra

Hilaren 23tik aurrera eguraldia aldatu zen eta iparraldeko edo ipar-mendebaldeko haizea izan zen nagusi, hilaren 23an Britainia inguruan kokatutako depresio txiki bati loturiko fronte hotz bat pasa ondoren. Tenperaturak nabarmen egin zuen behera denean, kostaldean izan ezik. Hurrengo egunetan Azoreetako antizikloiaren eraginpean egon ginen eta ipar/ipar-mendebaldeko haizea ibili zen. Iparraldean zerua hodeitsu egon zen eta euri txikia eta zirimiria egin zituen, batez ere kostaldean. Hegoaldean zerua garbiago egon zen, baina ez zuen berorik egin.

Uztailaren 30etik 31ra

Hilaren amaieran ipar-haizea indartu egin zen eta goi-geruzan aire hotza agertu zen. Ezegonkortasuna areagotu egin zen, beraz, eta euria ugariago egin zuen. Tenperatura are baxuagoa izan zen eta hilaren 31an hilabete osoko tenperatura maximorik baxuenak neurtu ziren hainbat estaziotan.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko uztaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	19.4	22.8	32.6	16.5	13.1	0	32.3	9.4	6
Lasarte	18.7	22.5	30.5	15.3	11.7	0	77.1	27.6	7
Arrasate	18.4	24.0	34.1	13.8	9.3	0	17.9	3.9	7
Abetxuko	18.0	26.0	35.8	11.9	6.6	0	0.6	0.3	0
Páganos	20.3	27.8	36.7	13.5	9.6	0	0.7	0.7	0



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normala



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko balioak

Uztailean ez zen efemeriderik izan.



Muturreko egoerak

Uztailean 4 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 2 muturreko temperatura altuengatik eta 2 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 10ean goi-geruzan aska bat Iberiar Penintsulan kokatu zen eta 850 hPa-eko mailan Afrika iparraldean jatorria zuen aire-masa bero bat zabaldu zen EAEn. Hilaren 11an Penintsularen hegoaldean 850 hPa-eko mailan airearen temperatura 30 °C ingurukoa izan zen eta Araba hegoaldean 20 °C ingurukoa. Mediterraneo isurialdean temperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren, Zambranan altuena (34.1 °C). Iberiar Penintsularen hego-ekialdeko zenbait lekutan maximoak 44 °C-tik gorakoak izan ziren, erreferentziazko denboraldiarekiko 5-10 °C-ko anomalia, alegia.

Igandea, hilak 11: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik Ebro ondoko eskualdean 15etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 20an eta 21ean Mediterraneo isurialdean beroa izan zen nagusi (hilak 20, Espejo, 36.3 °C; hilak 21, Kanpezu, 36.5 °C). Hilaren 22an gailur bat Iberiar Penintsularen ekialdean eta Frantzia hegoaldean zabaldu zen eta aire-masa oso bero bat agertu zen Penintsularen ekialdean. Ebro ondoko eskualdean eta iragate-zonako hainbat tokitan temperatura maximoak muturrekoak izan ziren. Kanpezuko estazioan uztailean inoiz neurtutako temperaturarik altuena neurtu zen. Horrez gain, aipatutako bi zona horietan baso-sutea izateko arriskua handia izan zen, temperatura altuagatik, hezetasun erlatibo baxuagatik eta goizean eta arratsaldearen hasieran ibili zen hego-haizeagatik. Arratsaldea aurrera joan ahala haizea ipar-osagaira aldatu zen. Kantauri isurialdean goizetik aurrera izan zen nagusi ipar-osagaiko haizea eta zerua hodeitsu egon zen, behe-hodeiekin, Gipuzkoako barnealdean izan ezik, han temperatura maximoak 28-30 °C ingurukoak izan ziren. Hilaren 23an barnealde osoan temperatura jaitsi egin zen, baina Araba hegoaldean beroa egiten jarraitu zuen (Kanpezu, 35.3 °C, Zambrana, 34.7 °C; Moreda 34.3 °C); temperatura altuengatik eta goizean eta arratsaldearen hasieran nagusi izan zen hego-haizeagatik, hezetasun erlatiboa baxua izan zen eta baso-sutea izateko arriskua, berriz, altua.

Estazioa	Tmax, hilak 22 (°C)
Zambrana	38.5
Kanpezu	38.4
Espejo	38.2
Nanclares	37.5
Moreda	37.5
Trebiño	37.3
Etura	37
Arkauti	36.8
Páganos	36.7
Abetxuko	35.8
Salvatierra	35.7



Zona	Tmax, hilak 22 (°C)
Ebro ondoko eskualdea	37.6
Iragate-zona	35.8

Osteguna, hilak 22: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 15etatik 20etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 23: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 18etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko temperatura: hileko batez besteko temperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko temperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko temperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko temperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko temperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, temperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* temperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. temperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. temperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. temperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* temperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://meteodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.